

Zenbat da ordubete?

ERLOJUAREN IRAKURKETA



LEIRE ARANA FISIKAN LIZENTZIADUNA
ETA 'MATEMATIKETAN.EUS'
WEBGUNEAREN SORTZAILEA
ARGAZKIA: ETAPAINFANTIL.COM

Artikuluaren tituluak atenzioa eman badizu, zuenean gai honi bueltaka ibiliko zaretelako izango da, agian. Erlojuaren eta orduaren irakurketaren eta denboraren irakurketaren ikasketa prozesuaren inguruko hausnarketak bilatuko dituzu bertan.

Izan ere, erlojuaren kontuak bereganatzeko urteak behar izaten dituzte haurrek. Helduon ikuspegitik ulertzeko zaila da, guk orokorrean oso asimilatuta daukagun gaia delako, baina oso-oso gai konplexua da ume batentzako. Hiru aspektu oso ezberdin garatuaz joango da umea bide luze horretan.

Alde batetik, erloju analogikoaren zein digitalaren irakurketa hutsa egiten ikasi beharko du. Hau da, agian, umeak lehenengo garatuko duen gaitasuna. Erloju digitalean analogikoan baino azkarrago lortuko du normalean irakurketa hutsa burutzea. Beste fronte baten, ordua adierazteko sistemaren

konplexutasuna bereganatzeko lana izango du.

Bigarren aspektu honen zailtasuna bi aldetatik datorkigu; erlojuaren mekanismo eder baina konplexutik erartzen dena, alde batetik. Izan ere, erloju analogikoan hiru orratz daude, baina bakoitzak bueltak abiadura ezberdinetan ematen ditu, eta bakoitzak ematen duen informazioa oso ezberdina da. Azkarrenaren mugimenduak beste biengan dauka eragina, nahiz eta eragin hori begi bistaz ezin duen ia behatu umeak.

Baina, beste aldetik, gizartearen ohiturak daude. Orduak irakurtzeko oso modu ezberdinak baitauzkagu; nahasiak, gainera. Ordua esateko modu batzuk orratzei begiratuta berehala ondorioztatzeko modukoak dira, baina beste batzuek zatikiekin edo kenketekin zerikusia dute; are gehiago, erlojuaren irakurketa soilarekin zerikusia daukaten moduak dira gutxien erabiltzen direnak kalean. Pentsa, adibidez, zer pasatzen den "gaueko hamarrak

laurden gutxi" deitzen den orduarekin.

Erloju digitalarekin ari bagara, 21:45 jarriko du. Beraz, 12tik 21 erako kontaketa egin behar da 9ak direla ondorioztatzeko. Gero, 45a 3/4ekin erlazionatu behar da, eta 1 edo osoari falta zaiona kalkulatu –hau da, zatikien arteko kenketa bat egin behar da–.

Analogikotik abiatuta ez dauka ume gizajoak bide errazagoa; izan ere, analogikoan orratz txikia ia 10aren gainean dago, baina hori ahaztu eta 9arekin erlazionatu behar da ordua; eta orratz handia 45ean dagoenez, berriz ere 45etik 60rako igoera egin behar du –hori kenketa bat da–, eta dagokion zatikiekin erlazionatu. Umeari ari gatzazkia eskatzen zatikiak erabiltzea eta osoa betetzeko laurdena falta dela konturatzeara. Hori, berriz ere, kenketa bat da. Erotzeko moduko!

Denbora erlatiboa da

Hirugarren aspektua falta da oraindik, hala ere: denboraren igaroaren zentzuarekin zerikusia duena, alegia. Erlojuaren irakurketak eta gure